



## INTERPRETAZIO ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA AGENTZIEN MAHAIA

2022ko uztailaren 19a

### GAI-ZERREDA:

1. Ongi etorria.
2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa
3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa
4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:
  - Getxo Bono 2023 proposamenak
  - GetxoAktibaTU! 2022
  - 2022ko kontrataziorako laguntzak
5. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.
6. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

BERTARATUAK: (% 61,5)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Smartin Bilbao	Saioa Martin	X		
Wilextours	Pablo Perez		X	
Go Basquing	Iñigo García-Valenzuela	X		
Geotxiki	Aintzane Goffard	X		
Ekobideak	Imanol López	X		
Ekobideak	Bárbara Casas	X		
Iparraldeko Ordezkaría. Tcas	Josu Abeytua		X	
Sektoreko Ordezkaría + El Transbordador de Vizcaya, SL	Ainhoa Sarriegi		X	
Getxo Tours	Unai Celaá		X	



MICE Design	Virginia Pérez		X	
Cristina Laiseca ordezkaria	Cristina Laiseca	X		
Bilbao Food Safari	Oihana Oribe	X		
Punta Begoña Galeriak Fundazioa	María Peraita	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

## EDUKIAK:

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Sonia Urdiain turismo-teknikariak barkamena eskatu du bilera egiteko datagatik, sektoreko lan-bolumen handieneko garaiarekin bat datorrelako. Izan ere, beharrezkoa da garai horretan biltzea, Enpresen Aholku Foroaren lan-kronogramari dagokionez, irailaren amaierarako proposamen zehatz eta lehenetsiak bilduta edukitzea aurreikusten delako, ondoren, horiek 2023ko aurrekontu-proposamenean sartzea baloratu ahal izateko. Bilerara gerturatutakoak agurtu eta aurkeztu dira, jarraian udako denboraldiaren inguruko talde-eztabaida bat egiteko eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko.

### 2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

Smartin Bilbaoko Saioa Martinek oso pozik dagoela dio. Gaur egun, agentzietatik jasotzen ditu bezeroak, eta neurri txikiagoan zuzenean; batez ere atzerritarrak izaten dira. Bilbon egiten ditu bisitak, agentziek ez baitute Getxo sustatzen. Hala ere, beti gonbidatzen ditu bere bezeroak Getxo bisitatzerara. Gainera, Bilboko eskaintzaren barruan Getxo ere sustatzeko eskatu die agentziei.

Hobetzeko iradokizunen artean, Getxo Bilboko parte gisa agentziei ezagutarazteko beharra aipatu du, ezagutzeko bidaiekin edo bestelakoekin. Bestalde, Bilboko plano inprimatu bat sortzea iradokitzen du, Getxo barne hartzen duena.

Go Basquing enpresako Iñigo Garcia-Valenzuelak esan du 2020an bertan behera utzitako bidaietako bezeroen bisitak hartzen ari direla oraindik, eta 2023rako eskaera gutxi batzuk jasotzen hasi direla. Benetako eskaria ez da aipatutako aurreikuspenak bezain baikorra. Horrez gain, hainbat arlotan (ostalaritza, gidariak, gidak, etab.) ez dago profesionalik, pandemiaren ondoren sektorez aldatu direla uste baitu.

Hobetzeko iradokizunen artean, Bilbao Match eta halako proiektuetan parte hartzea aipatu du; Getxo agentzien artean kokatzen lagunduko luke. Sonia Urdiainek adierazi duenez, 2022ko edizioan taldeek Portu Zaharra eta Bizkaia Zubia bisitatu zituzten.



Imanol Lópezek eta Barbara Casasek diotenez, estatuko bezero asko dituzte, baina nazioarteko edo bertako oso gutxi; arraroa iruditzen zaie. Pandemian eta deskonfinamenduan zehar, bertako bezeroekin egin da lan, baina orain ia guztiz desagertu dira. Aste Santua amaitu zenetik beherakada handia izan da. Zenbakiak ez dira ederrak; ia % 40ko jaitsiera egon da. Bitxia iruditzen zaie; izan ere, webguneak interakzioa jasotzen duela ikusi dute, baina jendeak ez du jarduerarik erreserbatzen. Askotan ezeztapen asko izaten dira.

Eskariari begira, ez dute jokabide-eredu argirik antzematen; beraz, ez dakite zer alderdi landu.

Aintzane Goffardek, bestalde, Aste Santuan turista frantziar asko egon zela eta eskaria oso ona izan zela jakinarazi du, baina orain udan beherakada egon dela. Era berean, eskariari begira, ez du jokabide-eredu argirik antzeman; beraz, ez daki zer alderdi landu. Sonia Urdiainek horri buruz hausnartu du, eta turismo-bulegoko erabiltzaileengandik jasotzen dituzten datuetan oinarrituta, uste du atzerriko turistek –hasiera batean geroago etortzekoak zirenak– aurrea hartu dietela estatukoei. Estatuko bisitariak eskolako oporretatik aurrera hasi dira iristen (ekainaren amaieran). Litekeena da estatuko turismoak udan aurrera egin ahala egitea bisita.

Punta Begoña Galeriak Fundazioko María Peraitak dioenez, apirilean ireki zituzten ateak (Aste Santuari begira) eskaintza zabalduarekin, eta eskaria nahiko irregularra dela adierazi du. Harrera ona espero zuten familientzako tailerren kasuan, baina kostatzen ari da bezeroengana iristea eta erreserbak lortzea.

Bezero nagusiak bizkaitarrak dira, eta beldur dira egoerak okerrera egingo ote duen udak aurrera egin ahala eta behin bizkaitarrak oporretara joanda. Komunikazioa Bizkaitik kanpoko bezeroei zuzentzeko asmoa du.

Bilbao Food Safariko Oihana Oribe pozik dago eskariarekin, etengabe hazten ari baita. Ibilbide gastronomikoak eta fotografikoak. Turista estatubatuar eta kanadarrak nabarmentzen ditu batez ere.

Hobetzeko iradokizunen artean, gurutzealdiaren pack-etik kanpo, gurutzaldien bidaiarientzako eskaintza espezifikoak eskaintzen duen webgune bat jartzea iradokitzen du. Eskari puntualak jasotzen dituzte, eta horiei kosta egiten zaie informazio ordenatua eta elkartua aurkitzea.

Hori dela eta, Mirene Zabalgogezkoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, arloko zerbitzuaren bitartez, aholkularitza eskaintzeko edo posizionamendua aztertzeko eta webguneak aztertzeko aukera iradokitzen du. Horri dagokionez, Oihana Oribek iradoki du udalak norbait azpikontrata dezala beren sare sozialak kudeatzen laguntzeko –denbora asko ematen dute horietan–.

### 3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta merkataritzako ordezkariak egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Sonia Urdiainek, hots, egindako



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa.

Ez da horri buruzko ekarpenik egin.

#### 4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

##### a) Getxo Bono 2023 proposamenak

Oro har, sektoreak uste du Getxo Bonok ez duela lekurik haientzat. Barbara Casasen arabera: "Gehiago ikusten dut auzoko denda txikietarako". Gainerako parte-hartzaileek ere iritzi bera dute. Oihana Oribek esan du kudeaketak arazo gehiegi sortzen dizkiola. Imanol Lópezek gehitu du esperientzia txarra izan duela beste bonu batzuekin, eta ez zaio interesatzen. Saioa Martinek ere dio berak ez dituela erabiliko.

Geotxiki enpresako Aintzane esan du interesgarria iruditu zitzaiola, eta parte hartu zuela; dena den, hain azkar agortu ziren, non ez baitzuen bat bera ere trukatzeko astirik izan.

##### b) GetxoAktibaTU!

Mirene Zabalgogezcoak GetxoAktibaTU! programa zertan datzan azaldu du, bai eta pandemian online formatura nola bideratu zen ere. Hala ere, gaur egun, aurrez aurreko jarduerari ekin zaie berriro. Gainera, enpresak parte hartzera animatu ditu, programarako jarduerak antolatuz:

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - GetxoAktibaTU](#)

##### c) Kontratatorako laguntzak

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster argitaratuko diren kontratatorako laguntzak eskatzeko. [Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontratatorako 2022](#)

#### 5. Ideia eta proposamen berriak

Saioa Martinek Kirol Portuan kartelak, planoak eta liburuxkak eta halakoak jartzeko gune bat proposatzen du, udalerriko turismo-eskaintza erakusteko eta saltzeko. Gainera, autobusak Portu Zaharrera sartzeko aukera ere aipatu du. Sonia Urdiainek jakinarazi du 12 metro arteko luzera duten autobusak bakarrik sar daitezkeela, buelta emateko espazio mugatua dagoelako (ikus erantsitako dokumentua). Bere hitzaldian, Saioa Martinek azpimarratu du, Getxo Bilboko zati gisa saltzeko, Getxo barne hartzen duen plano bat izatea beharrezkoa dela.

Aintzane Goffardek flyscharen ibilbidean bainu publiko batzuk jartzea proposatu du. Sonia Urdiainek aditzera eman du Galeako gotorlekuaren ondoan batzuk



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

jartzea aurreikusita dagoela; Galeako aparkaleku zaharra eta Azkorriko hondartza lotzen dituen tartearen artean dago horien beharra.

Oro har, ordezkariak azpimarratzen dute beharrezkoa dela udalerriko hoteletara bisita komertzialak egitea Getxoko eskaintza turistikoa erakusteko; hori guztia, ezagutzeko bidaiak antolatzeko alternatiba gisa –aurreko saiakeretan ez dute erantzun onik izan– eta turismo bulegotik sistematikoki egiten den informazio turistikoa bidalketaren osagarri gisa.

Bertaratutakoek nabarmentzen duten beste lan-arlo bat BizkaiaCard sustatzea da, salmenta eta sustapen guneak zabalduz eta Getxoko eskaintza turistikoa partaidetza/atxikipena bultzatuz.

Sektoreak sustapen-kanpaina bat egitea proposatzen du, baina ikusita gaur egun ez dagoela identifikatutako publiko objektiborik eta bisitariak ez diotela patroia bati jarraitzen, eskaera ezetsi egin da.

Mirene Zabalgoeazcoa eta Sonia Urdiain ekonomia sustapeneko teknikariek, sustapenaren eremuan, enpresen webguneen posizionamendua hobetzeko beharra balioesten dute, bai eta turismo-eskaintza guztia bilduko duen tresna/atari bat sortzea ere, saltzeko aukera ematen duena.

Sonia Urdiainek jakinarazi du Ainhoa Sarriegik –El Transbordador de Vizcaya– utzi egingo duela betetzen duen ordezkari postua; hortaz, mahai sektorialeko ordezkari berria aukeratu behar dela adierazi du. Ordezkariaren lanaren/dedikazioaren norainokoa azaldu da, eta ez da erabakirik hartu momentuan. Interesa izan dezakeenari hautagaitza irailaren 8a baino lehen aurkezteko eskatu zaio.

## 6. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak

Saioa Martinek galdetu du ea Bizkaia Zubiaren ondoko turismo-bulegoak irekita jarraitzen duen eta ea beste norabait eramango den. Sonia Urdiainek aditzera eman du turismo-informazioko gunea ohiko formatuan dagoela irekita –zubiko plazan aurrefabrikatutako modulua–; nahiz eta 2019-2023 Legegintzaldiko Planak kalean lokal zabalago batean turismo-bulego bat irekitzea aurreikusten zuen, inguruan bulegoaren beharretara egokitzen diren lokal huts gutxi daude. Bestalde, ez dago aurreikusita plazan ezer finkorik jartzea, plazaren zati bat Unescoren Munduko Ondare izendapenaren baitan babestuta baitago.

Oihana Oribek galdetu du ea teknikoek identifikatu duten turistek Getxon eskatzen duten zerbait. Sonia Urdiainek adierazi duenez, turismo-bulegoan egiten diren kontsulta guztiak ITOURBASK-Euskadiko Turismo Bulegoen Sarea plataforman erregistratzen dira; horri esker, EAE osorako datu homogeenak eskura ditzakegu bisitarien profiei, jatorriari, gehien eskatzen diren kontsultei eta abarri buruz. Gastronomiaren arloan, galdera nagusia da: “Zer lekutan jan dezaket, non bezero nagusia bertakoa den eta ez turista?”

## 7. Hurrengo urratsak:



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea irailaren 13an. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

INTERPRETAZIO ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA AGENTZIEN MAHAIAREN  
ERABAKIAK (2022-07-19)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Sektorearen egoera edo/eta kokapena hobetu dezaketen proposamenak igortzea 2023an egikaritzeko	Sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte
3. Interpretazio zentro, gidari eta bidaiaria agentziak mahai sektorialeko ordezkari izateko hautagaitza aurkeztea	Sektoreko enpresak	Irailaren 8ra arte